

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	SEGURTASUNA BURDINBIDE GAINEKO GARRAIOAN	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0780		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meatzaritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Erauzketa-industrietako lurpeko garraio-instalazioetako eragiketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Bagoi bidezko burdinbide gaineko garraioa	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lurpeko indusketetako burdinbide gaineko garraioa	Iraupena	80

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0861\_2 LURPEKO INDUSKETETAKO BAGOI BIDEZKO BURDINBIDE GAINEKO GARRAIOA EGITEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB4 lanbide-burutzapenekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Babes indibidual eta kolektiboko ekipamenduak erabiltzea bagoi bidezko burdinbide gaineko garraiorako, lanpostuaren arrisku-motak identifikatuz.

- E11.1 Bagoi bidezko burdinbide gaineko garraioaren arrisku espezifikoak deskribatzea, dagozkien prebentzio-neurriekin lotuta.
- E11.2 Trena osatzeari, trenaren maniobrei eta trenaren gelditzeari loturiko arriskuak deskribatzea.
- E11.3 Karga-izaerari eta -motari (langileak, materialak, material bereziak, minerala, hondakinak), karga-baldintzei eta tren-zirkulazioari dagozkien segurtasuneko barne-xedapenak interpretatzea.
- E11.4 Bagoi bidezko burdinbide gaineko garraio-eragiketetan erabili beharreko norbera babesteko ekipamendu espezifikoak identifikatzea arriskuen arabera.
- E11.5 Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzeko eta mantentzeko modu egokia azaltzea fabrikatzailearen erabilera-eskuburuari jarraikiz.
- E11.6 Babes kolektiboko baliabideak identifikatzea (seinaleztapenak, gas-arazketa, suteen aurkako borroka) dagozkien arriskuekin lotuta.
- E11.7 Segurtasun- eta seinaleztapen-tresnak egiaztatzea funtzionamenduan gerta daitezkeen anomaliak detektatzeko.
- E11.8 Bagoi bidezko burdinbide gaineko garraio-eragiketek ingurumenean eragin ditzaketen arriskuak ezagutzea eta ingurumena babesteko kasu bakoitzean hartu behar diren neurriak adieraztea.
- E11.9 Burdinbide gaineko garraioko behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:
  - Laneko eta ingurumeneko arriskuak adieraztea.
  - Hartu beharreko prebentzio-neurriak ezartzea.
  - Norbera babesteko ekipamenduak aukeratzea eta prestatzea.
  - Babes kolektiboko ekipamenduak aukeratzea eta prestatzea.

A2: Bagoiak eta lokomotorak erraileratzeko ezarritako prozedurak aplikatzea erreminta eta lanabes egokiak erabiliz eta segurtasun-araudi espezifikoari jarraikiz.

- E12.1 Bagoiak eta lokomotorak erraileratzeari buruzko segurtasuneko barne-xedapen espezifikoak interpretatzea, bereziki eragiketa horiei dagozkien seinaleztapen eta balizaje espezifikoak.
- E12.2 Bagoiak eta lokomotorak erraileratzeko behar diren erreminta eta lanabesak segurtasun-araudia betez aukeratzea.
- E12.3 Bagoiak eta lokomotorak erraileratzeko prozedura deskribatzea, katu kremaile radunen, katu hidraulikoen eta erabilitako gainerako erreminten funtzionamendu-modua adieraziz.
- E12.4 Bagoiak erraileratzerakoan gerta daitezkeen arrisku-egoerak deskribatzea baita horiek saihesteko modua ere.
- E12.5 Indusketetako bagoi bidezko burdinbide gaineko garraioko behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:
  - Gunea seinaleztatzea.
  - Errailetik irtendako bagoia askatzea trenetik bananduz.
  - Katu jasotzaileak edo erraileragailuak erabiltzea bagoia erraileratzeko.
  - Bagoia kroatzea.
  - Seinaleztapenak kentzea.
  - Trena funtzionamenduan jartzea.

**Edukiak:**

### 1. Burdinbide gaineko garraioaren arrisku espezifikokoak eta prebentzio-neurriak.

- Meatzte-segurtasuneko oinarritzko arau aplikagarriak. Segurtasuneko barne-xedapenak.
- Burdinbide gaineko garraioaren arrisku espezifikokoak:
  - Talkak, atzetik jotzea.
  - Languneko elementuen edo instalazioen kontra jotzea.
  - Errailetik irteteak. Iraultzeak. Harrapaketak.
  - Harrapatzeak.
- Hartu beharreko lan-arriskuak prebenitzeko neurriak.
- Prebentzio-baliabide kolektiboak.
  - Segurtasun-gailuak.
  - Makinen babesak.
  - Trenaren inguruneko arriskugunea.
  - Languneko seinaleztapena.
  - Trenen zirkulazioan erabiltzen diren kodeak eta seinaleztapen-motak.
- Aireztapen-sistemekin bateragarriak diren zirkulazio-baldintzak.
- Trenaren erraileratzea:
  - Prozedura operatiboa.
  - erremintak eta lanabesak (polipastoak, erraileratzaileak, katua): ezaugarriak eta erabilera.
  - Segurtasuneko barne-xedapenak.
- Gorabeheren parteak.
- Ingurumen-kutsaduraren prebentzio-arau espezifikokoak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0779 Lurpeko indusketetako burdinbide gaineko garraioa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Erauzketa-industrietako lurpeko garraio-instalazioetako eragiketak.